ASTEKARIA | 2015eko maiatzaren 22an | XVIII. urtea | USURBIL | 616. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua

Sagardo Eguna, iruditan

Matrikulazioa osatzeko garaia da Zumarte Musika Eskolan

Kafe-tertulia, larunbat honetan Matrakak taldeak deituta



# Hautesleen txanda

USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

✆ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

## Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administrazioa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produkzio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**AURREMATRIKULA maiatzaren 25etik ekainaren 5era**

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 € tik**



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
**Agerreazpi**n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN



VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

www.viviendaslanin.com

## Albistea iruditan

# Harro sentitzeko hamaika arrazoi

Ez dute mailaz igotzea lortu, baina ez da izango saiatu ez direlako, onena emanda heldu baitzen senior nesken eskubaloi taldea, asteburuan Santanderren jokatu duten igoera fasera. "Partidak galduta, baina animoz irabazle", amaitu dutela adierazi digute.

Eta ezin da ahaztu beste kontu bat: "Euskadiko txapeldun titulua inork ez die kenduko". Iaz lortu zuten maila igoera baina igoera gauzatzerik ez zen izan. Aurten antza, gauza zitekeen baina emaitzek ez diete ahalbidetu igoera. Halere, bi denboraldiotako garaipen guztiez oroituta, ez da zalantzarik zer ospatua badutela senior neskek. Zorionak!



**Zer ospatua badute senior neskek. Igoera ez dute lortu baina Euskadiko txapeldun titulua eurena da.**

## Laburrean

### Errigorako kontserben kanpaina

6 produktu lote dituzue aukeran: potxak, orburuak, pikillo piperrak, pikillo piper ekologikoak, zainzuriak eta barazki menestra. Eskaerak egiteko epea zabalik maiatzaren 26ra arte usurbil@errigora.eus edo 943 360 321 telefono zenbakian. Informazio gehiago: NOAUA!n edo errigora.eus atarian.

### Ekainaren 6tik 28ra, uretako sorospen ikastaroa

Ekainaren 6tik 28ra, larunbatetan 09:00-13:00 eta 15:00-19:00 artean eta igandetan, 9:00etatik 13:00etara. Saioak DYAko egoitzan eta Oiardo Kiroldegian. Ikastaroan parte hartzeko ezinbestekoa izango da, Lehen Sorospenetako titulua indarrean izatea. Izena emateko eta informazio gehiagorako: 943 46 46 22.

### Maiatzaren 29an, "Bihotz biriken suspertze eguna"

Maiatzaren 29an, 17:00-20:00 artean frontoian, DYA-k antolatuta. "Bihotz Biriken Geldialdi baten aurrean jokatzen jakitearen garrantzia gogorarazi nahi diogu gizarteari. Kanpaina honetarako, hainbat stand jarriko ditugu. Bertan, nahi duen orok oinarrizko suspertze teknikak ikasi ahalko ditu doan", antolatzaileen esanetan.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Aritz Gorriti**

# Barruak mugiarazi dizkigun eguna

Pasa al zaizue astelehena? Bezperako Sagardo Eguna, galanta izan zen eta. Mundiala aurtengoa ere, askorako eman zuena, gau eta egunez. Konturatuko zineten, jai eremua nola ari den hazten. Frontoi eta Dema plaza inguruak ziren garai bateko erreferentzia gune nagusiak, Sagardo Egunez. Askatasuna plaza batu zen gero festara eta urteotan, postuen inguruan biltzen zen jendetzaren joan etorria arintzen lagundu du. Sagardo zaleen zirkuitua are zabalagoa da ordea. Eta ez diot bakarrik tabernengatik. Aipatzekoa, Mikel Laboa plazara nola hedatu den festa giroa. Ezinbesteko geldialdi eta egonaldia askorentzat, goizeko sagardo festa amaitu ostean. Aurten, inoiz baino gehiago, karpa eta postuez josia.

Musika, jan-edana eskaini du euskal presoen eskubideen aldeko elkartasun gunean bilakatu den frontoi atzeak. Une hunkigarriak bizi izan dira aurten. Bi hamarkada luzez eginiko lan isila eta eskainitako laguntza eskertu nahi zieten, ezustean. Eta malkotan batzuk, hunkituta hartu zuten denek, urteotan bezala, igandean ere herritarren zerbitzura lanean eta euskal presoen senideak laguntzen aritu ziren talogileak. Merezitako omenaldi bikaina egin zien Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko elkarretaratzean bildutakoek, bertso, kriseilu banatze eta txalo zaparradarekin.

Eta handik metro gutxira, egun osoko elkartasun faktoria. Laguntza biltzera zetozen eta harrera ezin hobea izan dute. Eman ere, zuten guztia eman zutelako. #Kilometroak15 urte honetan izan dugun Gattunk eremuaz ari gara. Erakusleiho koloretsudun denda zabaldu, kalean postua jarri eta Gure Zozketako errifak saltzen aritzeaz gain, arrakasta itzela izan zuen eta Gattunk Tonbolak. Ireki zutenetik etengabekoa izan zen jendearen joan etorria. Boluntario talde ederra osatu zuten eta goiz zein arratsaldez, dena eman zuten, Anak eta Larraitzek. Zoriontzekoa zalantzarik gabe, egin zuten ahalegin ikaragarria.

Tonbolara gerturaturiko inor gutxi geratu zen oparirik gabe. Opariren bat tokatzeko probabilitatea altua edo oso altua zen eta. Arratsaldeko tonbola erotikoan bereziki. Lotsatiak izango omen gattunk gero, baina batzuei kontatu zietelako, besteek nonbait irakurri zutelako, edota kanpotik etorritako hainbat lagunek azken orduan jakin zutelako, jendetza batu zen. Gehienetan ekitaldiak hasteko kortesiazko 10 minutuak pasa arte itxaron beharra izaten da, baina oraingoan ez zen beharrik izan. Puntual asko hasi zen kondoi, jantzi eta bibragailuz horniturıko sari banatze festa. Tonbolak ere bere aletxoa jarri zuen nahigabe, oraindik zer normaldua baden sexualitate kontuetan. Umore ezin onez, irri eginez, opari bat tokatu eta "nik honekin zer egin behar dut?" galdetuz joan zen saioa.

Sagardo Eguneko azken orduetan, goizeko kamera eta fokuen begiradetatik kanpo, eta jendearen joan etorria zertxobait baretu ostean egoten den herritarren arteko giro intimo hori sortzen lagundu zuen tonbolak eta tonbola osteko orduek. Eta hortik aurrera, txosna eta tabernetan jarraitu zuten parranda eta urte osorako izango ditugun esamesek. Zenbatek eskatu ote digu, lerrootan tartea egitea Sagardo Eguneko txutxumutxuei. Ez da txantxa. Baina hobe isilik "ba-gattunk", zipriztinduta bukatu nahi ez badugu. Hurrengo urtean gehiago.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas



# Komun inklusibo, parekide eta jasangarria

Urtebeteko epean, inklusibitate, parekidetasun eta jasangarritasun irizpideak aintzakotzat hartuko dituen komun unibertsal eredu berri bat diseinatu eta gauzatzeko lankidetza hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 14an Donostiako Diputazioko egoitzan, #Kilometroak15 ekimenak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak.



**Eñaut Lasarte eta Arantza Manterola #Kilometroak15-eko ordezkariak, Jon Peli Uriguen Berrikuntzako, Landa Garapen eta Turismo diputatua eta Carlos Garcia Mondragon Goi Eskola Politeknikoko zuzendari orokorra.**

"Hitzarmen horren bidez, hiru erakundeek, ezaugarri ezberdineko pertsonentzako komuna diseinatu eta garatuko dute. Parekidea, emakume zein gizonentzakoa, eta jasangarria, material biodegradagarri, berrerabilgarri edo birziklagarriekin eraikia. Azkenik, irisgarria, desgaitasunen bat duten pertsonak ere moldatzeko modukoa. Proiektua garatzeko, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatuko dute, prototipoaren garatzea (12 hilabete), sentsibilizazio eta pedagogia soziala, esperimentazio praktikoa eta beharrezko diru iturriak eskuratzeko konpromisoa hartuz hiru erakundeok", proiektu honen sustatzaileen esanetan.

**Aukera berdintasuna bermatzen du**

Egitasmo interesgarri eta eredugarria izango dela diote: "Komun unibertsala aurrerapen garrantzitsua izango dela uste dugu, jaia erosoago egingo duena, hainbat herritarren ezaugarrietara egokituko dena, eta Kilometroak jaiaz gainera, bestelako kale ekitaldietarako ere eredu positibo bat ekarriko duena".

Hainbat onura ekarriko ditu komun unibertsal berriak. "Gaitasun ezberdinak izanagatik herritar guztion eskubide eta aukera berdintasuna bermatzen du. Zerbitzua ematen du, ingurumena errespetatzen du, ekonomia feministari ekarpena egiten dio hasieratik pentsamoldea eraldatuz, eta berritzailea eta aitzindaria da, gizarteak balore eta eskubide orokorrei erantzunez aurrera egin dezan laguntzen duelako", proiektua gauzatu nahi duten erakundeen esanetan.

## Sutegi udal liburutegiko txokoa

# Udaberriko kronika txikia eta gonbidapen bat

Apirilaren 2an, Haur eta Gazte Liburuaren Eguna; Apirilaren 23an, Liburuaren Eguna: arrazoi ezin hobeak, Apirila eta Maiatzerako zenbait ekitaldi prestatzeko Sutegi Udal Liburutegian. Hona hemen orain artean gozatu ditugunen kronikatxoa:

**Apirilaren 16an, Txan fantasma,** Mariasun Landaren ipuin entzutetsua txotxongilo bidez taularatua. Saioaren amaieran, Karmentxu eta Txan fantasma elkarrekin geratzen zirela ospatzeko festa hastera gindoazenean... argia joan zitzaigun! A zer pena!

**Apirilaren 23an, Liburuaren egunean, Letrak eta gailetak** ekimena jarri genuen abian: papertxo batean hitz batzuk idaztearen truke, gaileta bana (edo bina...) oparitu genuen. Arrakasta sekulakoa izan zen. A, eta oraindik ere irakurgai daude idatzitakoak!

**Apirilaren 24an, Alkasoroko benta mintzagai** izan genuen, beste behin ere, Pako Aristiren gidaritzapean. Oso gustura!



**Maiatzaren 13a, Yolanda Arrieta**ren eskutik, Haur poesia, zer da hori? hitzaldi-tailer praktiko eta dinamikoa guraso eta hezitzaileei zuzendua: Poesia hitzak beldurtzen gaitu? Arratsaldeko 6ak ez da ordu ona gurasoentzako? Erreflexiorako gaiak. Arantxa bai zorioneko, Yolandarengandik "klase partikular" bat jaso baitzuen.

**Eta jarraian, gonbidapena:**

**Maiatzaren 28an,** asteazkenarekin, arratsaldeko 7etan, III. Gaztelerako literatura topaketa. **Uxue Alberdiren *El juego de las sillas*** liburuaren inguruan jardungo dugu, eta gidaria, oraingo honetan ere, Ana Merino "usurbildarra" izango da. Parte hartzeko interesa duen edonorentzat, liburuak eskuragarri daude Liburutegian. Anima zaitez, lagun giro ederra aurkituko duzu eta!




**Informazio gehiago nahi izanez gero:**
Sutegi Udal Liburutegian
Irazu 14, Usurbil
**Telefonoa:** 943360692
**Bloga:** http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/
**Twitter:** @usurbib
**Facebook:** Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia
**Noaua! Komunitatea:** Sutegi Udal Liburutegia
**App:** Liburutegiak










# Hotzetik berora joan zen sagardo festa

Jendea festara batzea kostako zela zirudien lehen orduan. Baina azkenean, urtero moduan, sagardo zaleek herria hartu zuten maiatzaren 17an. Hotzetik hasi zen usurbildarren urteko jaialdi nagusia berotzen joan zen, egunak aurrera egin ahala. Sagardo postuetako joan etorria ikusi besterik ez zen, giro ederraz jabetzeko.

Ezin ahaztu, antolatzaileek hilabeteotan eta egunean bertan egindako lana, ezta sagardoa edalontzietan zerbitzatzen aritu ziren herritarrek eskainitako laguntza ere. #Kilometroak15 urtean gaudenez, nola ez, 1968-69 urtean sorturiko Udarregi Ikastolak izan zuen Sagardo Egunari hasiera emateko ohorea. Ilusioz beterik, eta Kilometroak15 ekimenaren aldeko lanean dabiltzan guztiei eskerrak emateko baliatu zuen unea, Arantxa Iribar irakasleak. Irekiera ekitalditik aurrera, sagardoaren txinpartak ederki berotu zituen bazterrak.






Arantxa Iribarrek 45 urte daramatza Udarregi ikastolan, irakasle lanetan. Berak izan zuen aurtengo #SagardoEguna-ri hasiera emateko ohorea.



Aitor Izagirrerentzat izan zen botatzaileen txapela. Joseba Bengoetxearen–tzat bigarren saria izan zen eta, hirugarrena, Ander Aisarentzat.



#Gattunk tonbolan jendetza ibili zen goizetik iluntzera arte.



Izeberg eta Erokomeri-rekin giroa pil-pilean izan zen txosna gunean.









# “Elkartasunezko milaka talo”

Herrian falta direnez oroitzeko, elkarretaratzea iragarri zuen Usurbilen Nahi Ditugu Elkarteak. Talo-egileak erretiroa hartzeko asmoa dutela jakin zutenean, mobilizazioa talo-egileengana hurbildu zen eta han ondoko testua irakurri zuten, eta bertso bat abestu zuten. Une hunkigarria izan zen.

“Urtero Sagardo Euneko jaia preso dauzkagun herrikideak gure artean behar ditugula gogoratzeko aprobetxatzen dugu, haiek ere gure artean, sagardo goxoa dastatzen nahi ditugula adierazteko. Gure artean, Gure artera... Izen horrekin hasi zen lanean usurbildar talde bat duela urte mordoa herriko preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatuz eta beren senideei laguntza eta elkartasuna ekarriz.



**Ohi bezala, eguerdian elkarretaratzea egin zuten. Baina honakoan, talo-egileei urteotan egindako lana eskertu nahi izan zieten txotx batekin.**

Azken 20 urteetan, etenik gabe, alboan izan ditugu. Erraz esaten da baina guk inor baino hobeto dakigu gure senideei eta guri ere tokatu zaizkigun une latzetan bakarrik ez gaudela sentitzeak duen garrantzia. Gainera, guri ekarri diguten laguntzaz harago, Usurbilgo herriari ere ekarpen bikaina egin diote zalantzarik gabe.

Izan ere, beren esku trebeekin urteko festa nagusietan prestatu dituzten talo goxoei esker talde-lanaren balioa erakutsi dute eta, zer esanik ez, herri giroa ere pixkortu dute. Ondare hori jasotzeko beste belaunaldiak animatuko direla espero dugu, zinez, lastima izango bailitzateke balore horiek ez transmititzea.

Horregatik guztiagatik, egin duten lan bikainagatik eta beti gure ondoan izan direlako gure esker ona adierazi diegu publikoki aurtengo Sagardo Egunean. Xomorro, Olatz eta Patxirekin batera topa egin dugu beren omenez.

Seguru gaude taldean izan edo ez, beren babesa izaten jarraituko dugula eta preso guztiak, iheslari guztiak, sasian dauden guztiak etxean, gure artean izan arte, bidelagun izango dituguIa beste herritar askorekin batera. Milesker. Biba zuek!

*Hainbeste urte laguntzen beti*
*gure herritar presoak*
*zabaldurikan zuen bihotzak*
*luzaturikan besoak.*
*Herritar askok dastatu dugu*
*milaka talo goxoak*
*zuei eskerrak adierazteko*
*eguna dugu gaurkoa*
*Espainiako kartzeletatik*

Usurbilen Nahi Ditugu Elkartea”

# Zumarten matrikulatzeko garaia da

Ikasturtea amaitzen ari den honetan, datorrenean pentsatzen hasteko garaia da. Zumarte Musika Eskolaren kasuan behintzat. Datorren astean zabalduko da izena emateko epea. Gogoan hartu matrikulazio data barruan matrikulatzen ez den ikasleak bere plaza galduko duela.

**Matrikulazioa osatzeko egunak:**

■ Maiatzak 25 - 29 bitarte.

■ Goizez (egunero, astelehena ezik): 11:00etatik 13:00era.

■ Arratsaldez (egunero): 16:30-19:30.

**Ikasturte hasiera:**

■ Irailak 7 astelehena.



**Maiatzaren 9an, Zumarteko ikasleak batetik bestera ibili ziren. Goizean Errenterian, Musikaldia jaialdira 30 ikasle inguru bertaratu ziren. Arratsaldean, Anoetako estadioan izan ziren, EMUSIK-2016 jaialdiaren aurre estreinaldian. Zumartetik 85 ikasle inguru hurbildu ziren Anoetara.**

**Informazioa:**

■ Xehetasun gehiago jaso nahi izanez gero, Zumarte Musika Eskolako telefono zenbakira 943 371 594 deitu arratsaldez edo zumarte.org web orria bisitatu.

## Zumarteren XXX. urteurrena

■ **Ekainak 13 larunbata**

10:30 Txistularien kalejira.

12:30 Eguerdian, musika txokoko ikasleen emanaldia frontoian.

17:00 Elizan, Zumarte-Txiki, Zumarte eta Zumarte-Gazte abesbatzak.

19:30 Trikitilarien kalejira.

22:30 Trikitilari-Panderojole/Folk/Pop/Rock taldeen kontzertua frontoian.

■ **Ekainak 15 astelehena**

Ganbaran, 18:30h: piano,saxo,klarinete eta biolineko ikasleen audizioa.

■ **Ekainak 18 osteguna**

Sutegin, 19:00: bakarlari, bikote, talde instrumental txikiak. Gitarra taldea, klarineteak, saxofoiak, flautak, biolin taldea....

# 2015-2016 Musika Txokoa eta Musika Mintzairako ordutegia

| MUSIKA TXOKOAKO TALDEAK | MUSIKA TXOKOA ORDUTEGIA | |
|---|---|---|
| Musika Txokoa 1.1 (4 urte) | Asteartea 16:45 – 17:45 | |
| Musika Txokoa 1.2 (5 urte) | Osteguna 16:45 – 17:45 | |
| Musika Txokoa 1.3 (6 urte) | Asteartea -osteguna 17:45-18:30 | |
| Musika Txokoa 1.4 (7 urte) | Asteartea -osteguna 18:30-19:15 | |
| | | |
| **ZUBIETAKO MUSIKA TXOKOKO TALDEAK** | | |
| Musika Txokoa 1, 2 eta 3 (4-5-6 urtekoak) | Talde hauentzat Zubietan ez da eskaintzarik egingo. | |
| Musika Txokoa 4 (7 urtekoak). Gutxienez 5 ikasleko taldea. | Osteguna 13:30-14:30 | |
| | | |
| **MUSIKA MINTZAIRAKO TALDEAK** | **MUSIKA MINTZAIRA** | **KANTU-KANTARI** |
| Musika mintzaira 2.1 maila | Astelehena - asteazkena 16:40-17:40 | Asteazkena 17:40-18:30 (Zumarten) |
| Musika mintzaira 2.2 maila | Astelehena - asteazkena 17:40-18:40 | Asteazkena 17:00-17:40 (Zumarten) |
| Musika mintzaira 2.3 maila | Astelehena - asteazkena 18:40-19:30 | |
| Musika mintzaira 2.4 maila | Astelehena - asteazkena 19:30-20:20 | |
| | | |
| **ABESBATZAKO TALDEAK** | **ABESBATZAKO ORDUTEGIAK** | |
| ZUMARTE ABESBATZA - 10/12 urte (biak barne) (2005-2004 urte artean jaiotakoak) | Ostirala:16:45-17:45 (Zumarten) | |
| ZUMARTE ABESBATZA - 13 urte edo gehiago. (2003-edo lehenago jaiotakoak) | Ostirala:16:15-17:15 (Zumarten) | |
| ZUMARTE GAZTE ABESBATZA | Asteazkena: 18:30-19:30 (Zumarten) | |







# 2015.

## UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

gehigarri berezia



# Alderdi politikoen hautes-programak

# Zortzi mahai, bost hautesleku

Hemen dira udal eta foru hauteskundeak. Ostiral gauerdira arteko tartea dute ordezkari politikoek herritarrei bozka eskatzeko. Larunbatean hausnarketa eguna, eta igandean, maiatzaren 24an, botoa emateko aukera izango duzue, herrian zehar egokituko diren bost guneetako zortzi mahaietan. Adi, non erroldatuak zaudeten, horren arabera, gertuen duzuen lekura joan beharko duzue eta bozkatzera. Ez ahaztu nortasun agiria eramatea. Hauteslekura helduta, mahaian egongo diren herritarren argibideei jarraitu.

Udalak zozketa bidez hautaturiko mahaikideek goizeko 8:00etako egon beharko dute bozka lekuetan. 9:00etatik aurrera irekiko dira guneok herritarrek bozka ematen has daitezen:



Udal Hauteskunde hauetan, lau dira aurkeztu diren hautes-zerrendak.

### Udal eta Foru Hauteskundeak

■ Eguna: Maiatzak 24, igandea
■ Ordutegia: 09:00-20:00.
■ Bozkatzeko tokiak: Udarregi Ikastola, Haur Eskola, Aginagako Herri Ikastetxea, Santueneko Auzo Elkartea eta Zubietako Lanbide Eskola.

### Zubietako Herri Batzarra

■ Eguna: maiatzak 24, igandea.
■ Ordutegia: 09:00-20:00.
■ Bozkatzeko tokia: Alamandegi etxea.

## Hauteskunde kanpaina, azken txanpan

### Herritarren ekarpenak jasotzen jarraitzen du EHBilduk

Herritarren ekarpenak jasotzen segitzen du Usurbilgo EHBilduk. Pintxo-txotx solasaldia antolatu zuen koalizioak larunbatean, Sutegi atarian. Herritarrek maiatzaren 24ko udal hauteskundeetara aurkeztuko den hautagai taldeari egitasmoez galdetu edo proposamenak egiteko aukera izan zuten. Egunotan gazte eta jubilatuekin bildu nahi dute:

**Maiatzak 20, asteazkena**
■ 18:00 Ekitaldia jubilatuekin Artzabalen.



Larunbatean, Sutegiko atarian egin zuen ekitaldia EHBilduk.

**Maiatzak 21, osteguna**
■ 19:00 Ekitaldia gazte–ekin Potxoenean.

**Maiatzak 22, ostirala**
■ 19:00 Hauteskunde kanpaina amaierako ekitaldia frontoian.
Deitzailea: Usurbilgo EH-Bildu.

### Garapen agentzia eratzeko proposamena aurkeztu du EAJ-k

Hilabeteetan lanean aritu ondoren, Buruntzaldeako EAJ-PNVko ordezkariek eskualdean garapen agentzia eratzeko prestatu duten proposamena aurkeztu zuten maiatzaren 14an. Helburua da Burun–tzaldeko sei herriak elkartu eta koordinatzea.

Hori lortzeko, elkarte anonimoa eratzea proposatzen dute, egitura juridiko-ekonomikoa eta kontrol publikoa bermatua izango dituena. Jarrera sektarioak alde batera utzita, EAJ-PNVk lankidetzaren alde egin du,



Eskualdeko EAJ-PNVko ordezkariak, aurkezpen egunean.

eta, abokatu aditu baten laguntzarekin, proposamen bateratzailea prestatu du eskualdeko sei herrientzat. Orain, EAJ-PNVren ordezkariak eragile eta alderdi politikoekin elkartuko dira, proiektua partekatu eta euren ekarpenak jaso–tzeko.


USURBIL
EKINEZ EGINA
EMAN BOTOA
eaj-pnv.eus
gipuzko.eus
eaj pnv

# EHBildu koalizioaren hautes-programa




Parte hartzeko prozesu batean, ehun lagun baino gehiagoren artean osatu da herri-programa, eta, oraindik ere, aurkezpenak egiten ditugunean, herritarren ekarpenak jasotzen ari gara.

Hamahiru lan-ardatz jasotzen dira programan. Hona hemen, labur azalduta, zer jasotzen den ardatz horietako bakoitzean:

**Parekidetasuna**

Gaur egun, kontzeptu onartua da pertsona guztien arteko parekidetasuna, edozein dela ere generoa edo joera sexuala. Besterik da, ordea, praktika. Mugimendu feministaren eskutik joan behar dugu, gizon eta emakume, eredu patriarkalaren alternatiba egunero sortuz. Eta lanketa hori ezin da egin aparteko arlo bat balitz bezala, baizik eta gure jardun guztietan, nola arlo sozialean hala lan, kultur edo kirol munduan.

**Tokiko garapena**

Bertakoa indartzea da modurik onena eredu ekonomiko sozialagoa eta bidezkoagoa sortzeko.

Horretarako, EH Bilduk eskualdeko garapen integralerako agentzia indartuko du, azken lau urteetan egin bezala. Bide horretan, saiatuko gara enplegu duina sortzen eta herriko eragile ekonomikoekin elkarlanean aritzen.

**Ogasuna eta gizarte-zerbitzuak**

“Oinarrizko zerbitzu publikoak denontzat!”. Horra zein den EH Bilduren printzipioa. Horretarako kutxa publikoa zaindu beharra dago, gardentasunez, eta herritarrok daukagunaren arabera aportatuz.

Behar bereziak dituztenei eman beharreko zerbitzuak arreta bereziz zaindu nahi ditugu. Behar horiek zein diren uneoro jakitea beharrezkoa da, eta horrek eskatzen du komunikazio gertukoa izatea. Horretan ahaleginduko gara, bitarteko egokiak sortuta.

**Lurralde antolaketa**

“Oraina da geroa!” da Plangintza Orokorraren diseinuan erabiltzen ari garen leloa, orain hartzen dugun erabakiek markatuko dutelako nolakoa izango den etorkizuneko Usurbil. EH Bilduren ustez, hirigin–tzaren eredu jasangarriaren alde egin behar da. Zehazki, honako irizpideak babestuko ditugu:

✔ Egungo etxebizitza kopurua gutxitu, eta alokairuaren alde egin.

✔ Industrialguneetan berrerabilpena sustatu eta erabilgarritasuna handitu.

✔ Espazio publikoak mantendu eta ahal den neurrian ondasun publikoa aberastu.

✔ Oinezkoei eta bidegorriei lehentasuna eman.

✔ Txokoaldeko plaza berritu eta ekipamendua lortu.

✔ Aginagako erdiguneko ordenazio alternatiboa proposatu.

✔ Zubietako izaera babestu eta indartu Herri-Batzarrarekin eta Donostiako Udalarekin elkarlanean.

**Udal zerbitzuak**

Usurbilen dugun eredua babestu beharrekoa iruditzen zaigu: langile publikoen sare zabalari eutsi behar zaio, kalitatezko udal zerbitzuak

emateko. Proposamen konkretuak dira honako hauek: arreta bulegoa sortzea, udal lokalen erabilera egokia bermatzea, argiterian eta ur-sarean inbertsioak egitea, eta kaxkoan komun publikoa jartzea, besteak beste.

**Ingurumena**
Esana dugu zero zabor filosofian sakonduko dugula, hondakinak modu integralean tratatzeko, eta errauste-plantaren mehatxua behin-betikoz atzean uzteko. Murriztu, berrerabili eta birziklatu: ordena horretan, horiexek dira gure lehentasunak. Horrez gain, beste hainbat lan-ildo ere planteatzen ditugu, adibidez: kutsaduraren inbentarioa osatu nahi dugu, amiantoaren eragina neurtu eta gure basoen ezagutzan eta erabileran sakondu.

**Nekazaritza**
Gaur egun, inork ez du zalantzan jarriko bertako produktuak, garaian garaikoak, kontsumitzeak sekulako balioa duela. Nekazaritzarik gabeko herri bat nola izango da burujabe?

Baina, hori horrela izanda ere, ematen al diegu merezitako garrantzia nekazariei? Gure esku dagoen neurrian, saiatuko gara nekazarien beharrei erantzuten.

**Hezkuntza**
Eskolak eta herriak bereiz ezinezko bikotea osatzen dute. Herri hezitzailea nahi dugu, eta eskola herritarra. Horrek esan nahi du herriko jardueretan integratu behar ditugula eskoletako haur eta gaztetxoak, eta herriaren antolamenduan haurren beharrak ere oso aintzat hartu behar ditugula. Oso esperientzia aberasgarria izan da Plangintza Orokorraren diseinuan eskoletako haur-gazteen parte hartzea. Bide horretan saiatuko gara, herriko hezkuntza-mahaia indartuz, eta eskola txikiei ere arreta eskainiz.

**Aniztasuna**
Desberdin garenok elkarrekin bizitzea aberastasuna da. Horretarako, noski, zubiak eraiki behar dira, eta ez paretak. Udalak zubi-lan hori erraztu dezake, eta horretan ahaleginduko gara.

**Euskara**
Euskaraz bizi nahi dugu, oztopo, traba eta Urkijo guztien gainetik. Euskaraz bizitzea eskubidea da, pertsonala eta kolektiboa. Eta euskaraz ez dakitenek ere badute eskubide hori. Horregatik doan ikasteko aukera eskainiko dugu. Erabilera sustatzen saiatuko gara, sektore eta espazio guztietan.

**Kultura eta kirola**
Praktika aktiboan sinesten dugu, eta denok eduki behar dugu horretarako aukera: kultura eta kirola ez daitezela izan kontsumo soilerako. Auzolanean oinarrituta, herritik sortutako kultur jarduerei bultzada emango diegu. Herriko kultur ondarea ezagutzea, eta liburutegiaren erabilera hobetzea ere, badaude gure lehentasunen artean.

Kirol arloan, entrenatzaileen–tzako formazioa landu nahi dugu, kirol taldeen koordinaziorako elkargunea sortu, azpiegiturak hobetu, eta erreboteari, gure pilota joko zaharrari, hauspoa eman.

**Gazteria**
Gazteek dituzten gogo eta beharrei buruz, gazteek beraiek hitz egin behar dute. Beren autonomia errespetatuz, udala bidelagun izango dute. Parte hartzeko gune iraunkorrak sortzea beharrezkoa ikusten dugu.

**Parte hartzea**
Nola arraio arituko gara herrigin–tzan ez bada herritarrekin? EH Bildurentzat parte hartzea ez da modako leloa, herrigintzan aritzeko modua baizik. Orain, kuriosoa da, alderdi guztiak dira parte hartzearen aldekoak, nahiz eta beraien ibilbidean maiz erakutsi duten herriari bizkarra emateko joera.

Parte hartzearen kultura, hala ere, landu egin behar da, ez da berez sortzen. Horregatik, aukerak eta tresnak jarri behar dira, eta zintzoak izan parte hartzeko moldearekin.

Esandakotik aise ulertzen da guretzat parte hartzea ez dela aparteko ardatza, baizik eta udalaren jardueran, baita barruko antolamenduan ere, nonahi eta noiznahi erabili beharreko eredua. Horretan saiatuko gara.

Xehetasun gehiago jakin nahi izatera, edo ekarpenak egin nahi izanez gero, gurekin harremanetan jartzeko gonbita egiten diegu herritar guztiei. Antolatu ditugun saioetara joanez, http://usurbil.ehbildu.eus/ blogean sartuz, edo ehbildusurbil@gmail.com helbidera idatziz jar zaitezkete gurekin harremanetan. Gogotik estimatuko ditugu zuen proposamen guztiak.

# EAJ-PNV alderdiaren hautes-programa



**“Inposaketarik gabe, errespetuan oinarritu eta akordioetara iristeko gaitasuna duen taldea gara”.**

Puntu garrantzitsuenak:

**Usurbildar familien ongizatea bermatzea da** gure lehentasuna. Lankidetzatik oinarrizko zerbitzuak bermatu eta denengana iristen saiatuko gara.

Herrian badira hainbat familia, oinarrizko zerbitzuak jasotzeko zailtasunak dituztenak. Hori ez da guk asmatutako zerbait, baizik eta talde eta eragile ezberdinek helarazi diguten kezka. Oinarrizko zerbitzu hauek mantentzea garrantzitsua da, eta horretan saiatuko gara.

Gure asmoa herriko diagnosia egitea da. Herriko familiak dituzten beharrak eta aukerak ikusi, etxe–etako zein baserrietako egoera aztertu, eta ahalik eta modurik eraginkorrenean zerbitzuak manten–tzea da gure helburua.

Gazte eta adinekoengan jarriko dugu arreta. Oinarrizko zerbitzuak bermatuko ditugu: besteak beste, etxez etxeko laguntza, eguneko zentroko zerbitzua, janari egokia izateko zerbitzua.

**Herriko enpresen eta merkatarien egoera eta kezkak ezagutu** eta gertutasunetik bideratuko ditugu, herriko ekonomia suspertzeko eragile bilakatuz. **Hurbilago** herriko merkatarien elkartearekin lankidetza bideratuko dugu. Hau baita langabezia tasa jaitsi eta herriko ekonomia suspertzeko bidea.

Herrian ezinbestekoak dira enpresa eta merkatariak. Herritarren bizi kalitatea mantentzeko arestian aipatutako zerbitzuez gain, beste ekintza edo proiektuak aurrera eramatea ere. Herriko ekonomia areagotzea beharrezkoa da ordea, eta horretan datza, hain zuzen ere, gure helburu garrantzi–tsuenetako bat.

Aipatzen diren proiektuak aurrera eraman ahal izateko, ekonomia suspertzea eta enpresak indartzea beharrezkoa da, eta, horretarako, egoerak aztertu eta elkarlana bideratuko dugu. Horrez gain, Burun–tzaldea osoari zerbitzua emango dion garapen agentzia eraginkor baten beharra antzematen dugu, enpresa, lanbide eskola eta unibertsitatearekin elkarlana egingo lukeena. Eskualdeko enpresak, enplegua eta turismoa bultzatu eta sustatzea izango dira agentziaren helburuak. Gure herriko ekonomia haztea ahalbidetuko du garapen agentziak.

**Udalaren gastu finkoa murriztuko dugu**, aurrekontuaren % 88 baita.

Maiz hitz egiten da proiektuez. Baina, herriko ekonomia mugatua da. Horregatik da hain garrantzitsua, enpresak indartzeaz gain, udalaren gastu finkoa ere zaintzea. Izan ere, ezinezkoa da inbertsioetarako dirurik aurreikusi gabe proiektuak aurrera ateratzea. Gure asmoa da gastu finkoak zertan bideratuak dauden aztertzea, berrantolatzea eta inbertsioetarako aurrekontu handiagoa gordetzea.

**Inbertsioak handituko ditugu** herriari bultzada emateko.

Proiektuak aurrera eramateko inbertsioak egin nahi ditugu. Horretarako, berriro ere azpimarratuko dugu, gastu finkoak estutu behar dira, herriko ekonomia suspertu sarrerak handitzeko, eta inola ere ez dugu aurreikusten zergak igotzea ez eta fiskalitatea inposatzea ur kontsumoa murrizteko aitzakiarekin.

Herrian badira hainbat eskaera, premiazkoak direnak denak, baina lehentasunak ikusi behar ditugu. Honakoak dira garrantzitsuenak:

**Zumarte musika eskolak eraikin berria behar du,** gaur egungo eraikina egoera tamalgarrian dagoelako. Batetik, oraingo eraikuntza berrituko dugu bertako parte hartzaileen segurtasuna bermatzeko. Bestetik, herriko gazte askok musika zaletasun handia daukate. Horren adierazgarri dira bertan ditugun talde ezberdinak. Eta hauei ere erantzuna eman nahi diegu, esaterako, entseguetarako lokalak eskaintzen. Musikaren inguruko beharrak baldintza egokietan jartzea da helburua.

**Kirol instalakuntzen gabezia ikusten dugu**. Erantzun eraginkor eta azkarra landuko dugu hainbat klubek egiten duten lana eta dagoen eskaria kontutan hartuta. Ezingo dugu jarraitu partxe edo momentuko irtenbideekin. Baldintzak eta berrikuntzak beharrezkoak dira. Horregatik, kirol instalakuntzaren premia ikusten dugu. Herriko kirol elkarteen erabilera egokia bermatzeaz gain, aurrera atera nahi ditugu herritarrak kirolera bideratzeko programak. Elkarteetako gazteen parte hartzeaz gain, helduen kirola edo eta jarduera fisikoa bultzatzea garrantzitsuak dira bizi kalitate ona izateko.

**Hirigintza**

Ikuspegi iraunkor eta errealista batetan oinarritutako **Herri Antolamendu Plangintza Orokorraren alde gaude.** Etorkizunaren beharrak orekaz jasoko dituen plangintza baten alde egingo dugu, beharrei erantzun egokia emango dien baliabide moduan egokituz, inoiz ez oztopatzeko eta inposatzeko.

Aukerak bermatu behar ditugu gure seme-alabek ere Usurbilen bizitzen jarrai dezaten. Hori lortzeko tresnak bideratu behar dira: eraiki beharreko etxebizitzen kopuruak, lana bilatzeko aukerak,e.a.

Halaber, nekazaritza arloan egitasmoei babesa eskainiaz, plangintza bideratuko dugu erraztasunak ahalbidetzeko.

Herriko auzo ezberdinen berezitasunak eta behar desberdinak jasoko dituen plangintza bat egingo dugu.

**Eskola publikoaren alde egingo dugu**. Egungo ikastola mantentzearen alde gaude, baina, aldi berean, azterketa abiatuko dugu eskola publikoaren nahia zenbatekoa den identifikatzeko. Hala eskatzen duten herritarrei ere erantzun bat eman behar diegu, gaur egun, zerbitzu hori nahi duen orok, kanpora joan beharra baitauka.

**Garapen iraunkorraren alde egingo dugu** Usurbilen landa eremuak lehentasunezko lekua izango du, berau baita gure jatorria. Hori dela eta, bere etorkizuna bermatu nahi dugu. Horretarako, zelaien eta gune berdeen mantentze lanak bultzatu eta landa guneko azpiegiturak hobetuko ditugu.

**Azterketa sakona egingo dugu hondakinen arazoari irtenbide adostua bilatzeko**. Hondakinen arazoa Gipuzkoan daukagun beste arazo garrantzitsuetako bat da. Gure herrian galdeketa bat egin zen, eta emaitzak oso parekatuak izan baziren ere, atez ateko sistemaren aldekoak irabazi zuen. Hori onartzen dugu, baina uste dugu sistema bera egokitu eta hobetu behar dela. Izan ere, egungo kudeaketak 300.000 euroko defizita dauka, eta gastu hori luzaroan mantentzea oso zaila edo ezinezkoa dela deritzogu. Herritarrak birziklatzearekin sentsibilizatuak daudela ikusita, organikoekin egiten den bezala, edukiontzien aldeko apustua egiten dugu, askoz merkeagoa delako eta antzerako emaitzak ematen dituelako.

# PSE-EE alderdiaren hautes-programa

Udalerriarekiko gure konpromisoa ondorengo ildoetan oinarrituko da:

**Enplegua:**
Berraktibazio Ekonomikoa eta Enpleguaren aldeko Herri Plan bat ipini, langabezian dauden kolektiboentzat programa bat ezartzeko, bereziki zailtasun bereziak dituztenak kontuan hartuz: emakumeak, 45 urtetik gorako langabetuak eta iraupen luzeko langabetuak.

Komertzioaren zinegotzigoa eratu, komertzio txikiari eta herriko enpresei laguntza emateko, eta euren aldeko ekintza denak bideratzeko.

Poligono industrialen zabal–tzea eta ekintzaileei babesa ematea, herri garapen ekonomikoa eta enplegua sortzeko sustatzaile izan daitezen.

**Gizarte politika:**
Gizarte Zerbitzuak sustatu eta bultzatu.

Etxe-laguntza, larrialdi soziala eta aldian behinekoak ez diren laguntzak sustatzeko, Udaletxeko urteroko aurrekontua handitu.

Hirugarren sektorea deritzon bolondresei eta entitateei laguntza eta errekonozimendua: hirugarren adinari, inmigrazioari eta ahalmen urritasuna dutenei bereziki.

**Garapen iraunkorra:**
Atez ateko sistema kentzea, edukiontzien sistema ezarri, sailkako bilketan eta birziklatze arloan maila gorenera iritsi ahal izateko.

Herritarren artean sentsibilizazioa bultzatu eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko programak onartu.
Lehen sektorea babestu, euren produktuen salmenta erraztuz.

**Mugikortasuna:**
Herri mugikortasun sustengarriaren alde lan egin, efizientzia irizpideak ezarriz udal mailako kudeaketan.

Txirrinda sareen handitzea.

**Etxebizitza:**
Babes ofizialeko etxebizitzak sustatu, batez ere alokairu sozialekoak eta gazteentzat.

Baliabideen optimizazioa. Hutsik dauden etxebizitzen IBIaren tasaren %50aren errekargoa, eta etxebizitza publikoen balizko lurren salmentarekin eskuratutakoa, etxebizitzen erosketa egitera bideratu dadila, gero alokairu sozialean ipini ahal izateko.

**Fiskalitatea:**
Zerga sistema justuago baten ezartzea, elkartasun izaerakoa, bonifikazio, salbuespen eta zergen zatikatzearen bitartez. Krisiaren ondorioz, zailtasun gehien dituzten enpresa eta familientzat pen–tsatua.

**Kultura:**
Ekipamendu kulturalak hobetu eta kultur ekimen partikularrak zein kolektiboak sustatu edota



Fermin Orue-Echevarria, PSE-EEko alkategaia.

garatzen lagundu.

Gure haur eta gazteentzako aisia, hezkuntza, kultur zein kirol jardueren eskaintza zabaldu. Guraso elkarteen, hezkuntza zentroen, elkarteen eta herriko kirol taldeen babesarekin.

**Herritarren partehartzea eta gardentasuna:**
Gizalegezko kodearen, gobernu onaren eta Euskadiko herri-politikaren kalitate instituzionalaren aldeko konpromisoa.

Udalerriko gardentasunaren aldeko atari gaurkotu baten sortzea eta mantenua proposa–tzen dugu.

Herritarren partehartzea sustatuko duen benetako sistema bat sortu. Gure herriaren elkarlanerako sarea indartuz eta babesa eskainiz, baliabideak eskura jarriz eta modu aktiboan entzunez.

Aurrekontu partehartzaileak sustatu eta abisu, kexu eta proposamenak batuko dituen programa sortu, bizilagunei eran–tzuteko konpromiso zehatzak hartuz.

Administrazio elektronikoa bultzatu.

# PP alderdiaren hautes-programa

Politikoen eta herritarren arteko zatiketa ixteko ahaleginean, **gure programak ordezkari politikoen eta herritarren arteko harremana hobetzea bilatzen du**, partehartzea udalgintzako gaietan erraztuz, foro zein eztabaida irekien bitartez.

Udalaren jarduera hobetzeko, **herritarrek ere jarduera-planak bideratzeko bitartekoak ipiniko ditugu,** kontuen errenditzea bermatua gera dadin.

Arautegien aplikazioan, **herritarren partehartzeko mekanismoetan hobekuntzak** egitea beharrezkoa dela deritzogu, herritarren eta udal ordezkarien arteko hartueman handiagoa lortzeko.

**Herri erakundeetan gardentasun arauak ezartzea nahi dugu**, herritarrei gehien interesatzen zaizkien datuen argitaratzea orokortuz, subentzioei buruzkoak adibidez. Edota kontratazio prozeduren ingurukoak argitzeko, zerbitzuen kostuei zein kalitateari buruzkoak azaltzeko, inbertitutako funtsak eta jasotakoak agertzeko, ordainketen berri emateko…

Kudeaketa hobea izan dadin, eta teknologia berrien laguntzaz, **bizilagunen partehartzea sustatuko dituzten sistemak ipiniko ditugu martxan.** Komunikazio sareei arreta berezia ipiniko diegu, eremu publikoan partehartzea erraztu ahal izateko.

**Herrien arteko elkarrizketa eremu berriak sortu nahi ditugu**, eztabaida guneak sortuz eta kontsulta publikoen bitartez. Prozesu honetan, arreta berezia jarriz komunikabide sozialek eta teknologia berriek eskaini ditzaketen onurak kontuan hartuz.

**Alderdi Popularraren erronka da ahalik eta burokrazia gutxieneko administrazio baten alde lan egitea**, "zero paper", kudeaketa elektronikoa bultzatuz eta administrazioa 24 orduz zabalik egotea ahalbidetuz, urtean 365 egunetan.

**Kontuen errenditzeari buruzko konpromisoa mantentzen dugu.** Aurrekontuen burutzeari buruz informazioa emango dugu. Aurrekontuen oreka mantentzeko hartuko ditugun neurrien berri emango dugu eta baita administrazio lokalaren finantziazioaren sostengarritasunari buruz ere.

**Etxebizitza arloan, eraikinen egoera ona ziurtatzeko neurriak bultzatuko ditugu**, **irisgarritasun unibertsala eta efizientzia energetikoa.** Babestutako etxebizitzen alokairua sustatuko dugu eta baita erosteko aukera izango duen alokairua ere.

Udaletxetik **herri merkataritza babesteko neurriak indartu nahi ditugu**, eta artisauen jarduera ere sustatu, komertzializazio eta banaketa kanal berriak bultzatuz.

Aurrekontuen alorrean, gure asmoa da **politika zorrotz bat ezartzea udaletxeetan, sartzen den dirua baino gehiago ez gastatzea.** Zor dena garaiz ordaintzea, zerbitzuak eskaintzeko orduan finantziazio sustengarri batera iristeko bermea lortu, eta erabateko gardentasuna ziurtatu.

**Susperraldi ekonomikoa, hazkundea, oreka eta enplegua ekartzen ari den egonkortasun politika bultzatzen jarraituko dugu.** Gastuen arrazionalizazioa eta kostuen jaitsiera ekarriko dituzten politika berriak jarriko ditugu martxan. Eraginkortasuna, efizientzia eta kalitatea irizpide harturik. Arreta berezia ipiniko diogu zorraren jaitsierari.

**Administrazio publikoen arteko koordinazioa hobetzen jarraituko dugu,** kostuak jaitsi eta bikoizketak ekiditeko, prozedurak sinplifikatuz eta traba burokratikoak ezabatuz. Erosketa-zentroen erabilera eraginkorra izan daitekeela uste dugu, baliabide publikoen kudeaketa hobetzeko garaian bereziki, ekonomia lokaletan kalte izan gabe.

**Euskadiko Udal Legearen tramitazioan,** Batzar Nagusien konpententziak defendatuko ditugu, erakunde lokalen finantziazio ahalmena ziurtatzeko. Konpetentzien mugak definitzea eskatuko dugu eta batez ere, zerbitzu publikoen eskaintza egokia emateko garaian beharrezko baliabideak ziurtatu daitezen.

*Alderdi Popularrak ez digu alkategaiaren ezta hautes-zerrendaren argazkirik igorri.*

# Usurbilgo Hamaikabat: “Ez agurrik”

Usurbilgo Hamaikabatek ez du hautagai talderik aurkeztu maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako, zerrenda osatzeko modurik ez baitute izan. “Ez agurrik” izenburupean, h1usurbil.net atarian alderdiak kaleratu duen idatzian adierazi dutenez, “hurrengo herri-hauteskundeetan extremoetatik urrundua izango den aukera politikoa ez da izango; ez du isla izango udaletxean”.

Aberri Egunaren bueltan egin zuten adierazpenean, foru hauteskundeetan EAJren aldeko botoa eskatu zuen Hamaikabatek. Usurbilgo Hamaikabat web orrian honela jaso zuten alderdi jeltzalearen aldeko apustua: “azken lau urte hauetan, halaere, Gipuzkoako herrialdean, ezker abertzaleak gobernatu duelarik, okerrerako joera bat sumatu dugu. Ikusi dugu nola instituzioak



Josune Urquia eta Luismari Ormaetxea Hamaikabat-eko zinegotziak izan dira azken legealdian. Argazkia: h1usurbil.net

propaganda propiorako erabiltzen diren, nola diru publikoa politika antzuetan gastatu izan den, nola proiektuak geldiarazi diren, nola krisialdiari ez zaizkion alternatibarik jarri, eta nola herriaren borondatearen eta gehiengo politikoaren kontrako politikak inposatu egin diren”.

**Foru Hauteskundeetan, EAJren aldeko bozka eskatu dute**

Egoera honen aurrean “eta egoerak derrigortuta, H1!ko kideok, instituzioetan lanean egon garenean egin duguna kontuan harturik, aldaketa politikoaren aldeko deialdia egiten dugu. Horregatik datozen foru hauteskundeetarako deialdi publikoa egiten dugu EAJ-PNVren aldeko botoa eskatuaz. Aukera honek ordezkatzen du abertzaletasun demokratikoa eta era berean benetako aldaketa emateko aukerarik onena gertatzen da gure herrialdean behar diren politika publikoak eman daitezen”.

Hauteskundeetarako zerrenda osatzerik izan ez duten arren, eskerrak eman nahi dizkiete gerturatu diren herritarrei. Esker hitzak dituzte baita, urteotan Hamaikabat edo bestelako marka elektoralaren izenpean lanean jardun duten kideentzat. Azpian duzue Usurbilgo Hamaikabatek kaleratu duen idatzia, bere osotasunean:

## “Badakigu Hamaikabat alderditik gertu sentitzen direnek herrigintzan jarraituko dutela”

“Martxoaren amaieran, udal hauteskundeetara aurkezteko asmoz, zerrenda ireki, plurala eta gardentasunez herriko kudeaketan soilik arituko zena osatzeko gure baliabideak eskaini genizkien herritarrei. Herrigintza zinegotzi izaeratik lantzea interesa zutenei aukera zabaltzen genien.

Interesdunak gerturatu zaizkigu eta elkarrizketa aberasgarriak izan ere bai. Hala eta guztiz ere, helburu genuen zerrenda osatzea ez da posible izan eta hurrengo herri-hauteskundeetan extremoetatik urrundua izango den aukera politikoa ez da izango; ez du isla izango udaletxean.

Idatzi honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu hamarkadetan zehar, marka elektoral ezberdinen bidez, extremismo-eza, profesionaltasuna, esfortzua eta lana, herri konpromezua eta herriarekiko maitasuna, publikoki, hauteskunde zerrendetan joanez, alkate nahiz zinegotzi izanez, erakutsi dutenei.

Baita ere eskerrak eman nahi dizkiegu azken egunotan beren kezkak, beren nahiak, beren lehentasunak eta konpromezu maila adieraziz gerturatu zaizkigun guztiei.

Martxoko idatzian esaten genuen bezala, herrigintza era askotan gauzatu daiteke, eta badakigu Hamaikabat alderditik gertu sentitzen direnek herrigintzan jarraituko dutela, hurrengo lau urteetan ez zinegotzi bezala, baina bai herriko hainbat eta hainbat esparrutan.

Beraz, ez agurrik”.

*Hamaikabat-en web orrialdetik hartua, www.h1usurbil.net*


USURBILDARROK
garaile!
M22, ostirala
19:00tan EKITALDI POLITIKOA frontoian
Ondoren, herriko musikariekin KONTZERTUA
USURBILDARROK
garaile!
ehbildu
EMAN BOTOA
ehbildu


Udal Hauteskundeak 2015
www.noaua.eus
MAIATZAREN 24an BERTAN
UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEEN JARRAIPENA EGINGO DUGU INTERNETEN
EMAITZAK, BALORAZIOAK...
Usurbildarron zerbitzura
www.noaua.eus
facebook.com/noaua
@noaua

| TRIXERTAK | Sortzailea | |
|---|---|---|
| | berria | oninart |

**berria**n argitaratutako albisteetatik abiatuta Euskal Herriko zenbait sortzailek diseinatutako elastikoak.




**25€**
Bidalketa, BEZ barne
BERRIALAGUNEK
22,5€

# **berria**k jantzi egiten gaitu. Aukeratu udarako elastikoa!

**Eskariak:**
**berria**lagunek: berria.eus/trixertak
Gainerakoek: euskalherrikoplaza.com
943-30 43 45

Sortzaileak:
Zaldieroa - Zugazart
Savanna Studioa - Buatxabal

Kolore aukera eta eredu guztiak webgunean.

| Neurriak: | ZABALA | ESTUA |
|---|---|---|
| | %100 kotoia | %100 Kotoia |
| | 165 g/m2 | 165 g/m2 |
| | S-M-L-XL-XXL | S-M-L-XL |



Ainhoa Arrozpide Landa

# San Marko Mankomunitateko balantzea

2011ko maiatzean hasi zen legegintzaldia bukatzear da. Lau urteotan ikusi eta ikasi dugunaz hausnartu eta balorazioak egiteko garaia da.

Hondakinen kudeaketaz asko hitzegin da urte hauetan. Hondakinen kudeaketa, elite baten bulegoetan herritarren begiradatik urrun diseinatzen ziren garaiak atzean geratu dira, eta, zorionez, eztabaida jendartean zabaldu da gaiaren inguruko kontzientziazioa areagotuz.

Gipuzkoan 2016 urterako gaikako bilketan jarritako %60ko helburua geroz eta gertuago daukagu. Gipuzkoak, Europan beste inork ez bezalako erritmoan hobetu ditu bilketa emaitzak, egindako kudeaketa bikainari esker, eta erreferentzia bihurtu da, Europan eta munduan, hondakinen kudeaketa iraunkor baten alde dihardutenentzat.

Legegintzaldi hau, zaborraren eta errausketaren aroa atzean utzi eta Zero Zabor aroan sartu garenekoa izan da. Hastapenetan gauden arren, inflexio puntua legegintzaldi honetan eman dela garbi ikus daiteke. Gipuzkoan, errauste planta eraikitzeko bidean gauzak oso aurreratuta zeuden 2011 urtean. Hondakin gehienak nahasirik jasotzen ziren, materialak alferrik galduz, dena zabor bihurtuz. Gizonemakumeok ingurune osasungarri batean bizitzeko dugun eskubidea arriskuan zegoen.

2015 urtean nola gauden begiratzen badugu, hondakinak errausteko proiektua baztertuta dagoela ikus dezakegu, horri esker 250 milioi euro aurreztu direlarik. Horren ordez, Zero Zabor ereduarekin bat egingo duten azpiegiturak diseinatu eta, Eusko Jaurlaritzak jarritako oztopoek atzeratu arren, eraikitze bidean dira. Gipuzkoako 88 udalerritik 64k %60 baino gehiago biltzen dute gaika, urte gutxitan gaikako bilketa maila bikoiztu delarik. Gaur egun jada, Gipuzkoa mailan, hondakinen erdiak gaika biltzen dira, duela urte gutxi biltzen zenaren bikoitza. Materia organikoaren gaikako bilketa, 2011n halako lau izan da 2014 urtean etengabeko hobekuntza baten barruan.




**Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak bere balantzearen berri eman du.**

*ZERO ZABOR ELKARTEA*

***"Gipuzkoako 88 udalerritik 64k %60 baino gehiago biltzen dute gaika, urte gutxitan gaikako bilketa maila bikoiztu delarik"***

Hobekuntza hau baina, asimetrikoa izan da, hau da, hobekuntza ez da berdin gertatu mankomunitate eta herri guztietan. Batzuk ausardiaz jokatu eta etxeko lanak bikain egin dituzten artean, beste batzuen aurrerapena anekdotikoa izan da. Horrek, oraindik hobekuntza tarte handia dagoela erakusten digu.

**Sanmarko mankomunitatea**

Sanmarko mankomunitateko bilakaera aztertzen badugu, bi gauza nabarmentzen dira.

Batetik, Sanmarkon, Gipuzkoan gertatzen den antzera, garapena asimetrikoa da oso.

Aurrerapen handiak egin dituzten udalak daude, eta era berean, batere aurreratu ez dutenak.

Maila ona daukatenen artean hiruk, Usurbil, Hernani eta Oiartzunek jauzirik handiena aurreko legegintzaldian egin zuten. Azken lau urteotan aurrerapen aipagarriak egin dituztenak, Astigarraga, Lezo eta Pasaia izan dira. Hauen bilakaera ikusgarria izan den arren, mankomunitate barruko biztanlerian daukaten pisua txikia da eta ez du eragin handiegirik izan guztirako datuetan. Aurrerapen hauek mankomunitateko zuzendaritzatik jarritako oztopo etengabeei aurre eginez erdietsi behar izan dituzte. Ezin aipatu gabe utzi lehenegoz errefusaren gaineko sortzez besteko ordainketa sistema ezarri dela, azken hau hondakinen kudeaketan aintzindari izaten ari den Usurbilen.

Ezer gutxi edo batere ez aurreratu ez dutenen artean Donostia, Urnieta, Errenteria eta Lasarte-Oria daude. Azken honetan, alderdikeriak, organikoa biltzeko aukerarik gabe mantentzen ditu oraindik herritarrak.

**Mankomunitatetik oztopatzen**

Mankomunitateko zuzendaritzan, hilabete gutxi batzuk kenduta, ia legegintzaldi guztian errausketaren defendatzaile sutsua den Denis Itxaso egon da. Kargua hartu zuenean egindako adierazpenetan garbi utzi zuen bere xede nagusia errausketa galerazi zezakeen edozer oztopatzea zela, murrizketa eta birziklapenean aurrerapen garrantzitsuak ekar ditzakeen edozer eragotziz. Bere "alde" esan behar hitza bete duela, eta lau urteotan bilketa sistema antzuak bultzatu eta eraginkorrak ahal duen moduan oztopatzen aritu dela eskura izan dituen tresna guztiekin. Emaitza espero daitekeena. Txingudiko mankomunitatearekin batera hobekuntza eskasena izan duen mankomunitatea da, %5 bakarrik egin du gora gaikako bilketak, eta errausketaren alde dauden beste bi mankomunitateekin batera, Txingudi eta Debabarrenakoarekin batera, kudeaketa kaxkarrenen hirukotea osatzen du.












# Intza Salsamendi Izetak irabazi du Santixabeletako egitarau-lehiaketa



**Helduen danborradako lehen entseguak ekainaren 9an eta 11n izango dira. 20:00etan Udarregi ikastolan.**

Jai Batzordeak ezagutzera eman berri ditu Santixabeletako egitarau diseinu lehiaketako txapeldunaren izen abizenak, "Tita" ezizenarekin aurkeztu den Intza Salsamendi Izeta herritarrak irabazi du aurtengo edizioa. Txapeldun beteranoa dugu, 500 euroko ordainsaria jasoko duen usurbildarrak 2011 eta 2012ko edizioak ere irabazi baitzituen. Guztira 5 lan aurkeztu dira, ekimenean parte hartzeko maiatzaren 12ra arte finkatua zegoen epearen baitan.

Intzak sorturiko diseinua izango du beraz, uztailaren 1etik 5era ospatuko diren Santixabeletako egitarauak. Hala erabaki du, Jai Batzordeko bi kidek (Itziar Brittek eta Ana Segurolak), diseinu arloan ezagutza duten bi kidek (Beatriz Aldak eta Ainhoa Bereziartuak) eta kultura arloko zinegotzia den Alaitz Aizpuruak osaturiko epaimahaiak. Salsamendiren lana ezagutzeko ordea, oraindik hilabete itxaron beharko dugu. Ekaina amaieran inprimatu eta banatuko baitu Udalak etxeetan.

**Txupinazorako hautagaia**

Nork merezi du zuen ustez, Santixabelei hasiera emateko ohorea izatea? Gogokoen duzuen edo dituzuen herritarrak proposatzeko aukera duzue aurten ere, Jai Batzordeak antolatu duen ekimenean. Bidali txupinazoa jaurtitzeko zuen hautagaia, maiatzaren 29a baino lehen, kultura@usurbil.eus helbidera, edo helarazi zuen ekarpenak Sutegi udal liburutegira edo Potxoeneara.

**Bertsopaper Lehiaketa**

16 urtetik gorako usurbildarra bazara, gai librean 8-10 bertso idatzita parte har dezakezue Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketan. Lanak ekainaren 1a baino helarazi Usurbilgo Udalera. Lanak izengoitiz aurkeztu beharko dira (originala eta 3 kopia) eta aparteko gutunazal itxi batean, parte hartzailearen datuak. Aurtengo sariketa, jaiak hasi aurreko asteburuan, ekainaren 26an 19:30etan Sutegin ospatuko den bertso musikatuen saioan.

**Helduen danborrada**

Lehen bi entsegu saioak ekainaren 9an eta 11n, 20:00etan Udarregi Ikastolako eraikin gorriko beheko frontoietan. Izen ematea saiootan egin beharko da. Santixabeletako helduen danborradan, 16 urtetik gorako herritarrek parte hartuko ahalko dute. Entsegu saioetara gerrikoarekin joateko deialdia luzatu dute antolatzaileek.

**Jaietan buruhandiekin ateratzeko jendea behar da**

Santixabeletan, buruhandiekin ateratzeko jendea behar da. Uztailaren 1ean, 2an eta 5ean hain juxtu. Beste egunetan bolondresak badaude eta ez dira behar.

Animatzen dena kiroldegira hurbildu dadila Kirol sailera, (Iñaki, 943372498/ kirola@usurbil.eus), edo Kultur sailera (Maite, 943371999 / kultura@usurbil.eus).

## Autodefentsa feminista

Maitena Monroyk bideraturiko saioa, ekainaren 6an, Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatuta. Egun osoko ikastaroa eskainiko du Potxoenean, ordutegi honetan: 09:30-13:30 eta 15:00-19:00. Izen emateko: 943377110 / parekidetasuna@usurbil.eus

## Hitz Ahoren ekitaldiak, Ikastolaren aldeko astean

Udarregi ikastolako Hitz Aho guraso elkarteak antolatuko du ekainaren 5eko egitaraua. Hauek izango dira ekitaldiak:

- 17:00 Haurrentzako jolasak askatasuna plazan.
- 18:00 Txokolatada askatasuna plazan. Jarraian buruhandiak. Bakoitzak bere etxetik ekar ditzala.
- 19:30 Ikastolaren inguruko dokumentala Sutegin. Jarraian luntxa Sutegiko erakusketa gelan.

## Usurbil FTren eskertza

Usurbil F.T.-tik eskerrak eman nahi dizkiete, larunbatean kadete eta senior mutilek Haranen jokaturiko neurketa erabakiorretara animatzera joan zirenei eta egon zen giroagatik. Kadete mutilek 2-1 irabazi zuten Vasconiaren aurkako Kopako final laurdena eta senior mutilek neurketa berdinduta amaitu zuten hernaniarrekin. Datorrena, asteburu erabakiorra izango dute bi taldeek. "Kadete mutilek finalerdiak jolastuko dituzte Orion. Ohorezko Mailako mutilak berriz, maila mantentzeko azken aukera dute Hondarribian!", Usurbil F.T.-tik berri eman dutenez.

**Errifa zozketa**

Honatx larunbateko zenbaki sarituak: lehen saria 1.411, afaria Artzabalen. Irudian dituzue sarituak. Bigarren zenbaki saritua, 2.964. Errifaren jabea ez da agertu oraindik.



ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
·Frutak ·Barazkiak ·Etxeko produktuak ·Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42



# "Kirol egokitua eta inklusioa", maiatzaren 27an hitzaldia Sutegin

#Kilometroak15-en baitan ikasturte honetan zehar lanean ari diren batzordeen artean, bada bat inklusibitatea jorratzen ari dena; Guztiok Gattunk taldea. Baina inklusibitatea aipatzerakoan zertaz ari garen ba ote dakigu? Oso argigarria izan daiteke, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin batera, maiatzaren 27rako 18:00etan Sutegiko erakustaretoan antolatu duten hitzaldia. Gipuzkoako kirol egokituaren errealitatea ezagutzera emango da ekitaldian, inklusioa zer den modu zabalean, urritasun motak eta ezaugarriak,...


Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioarekin batera antolatu dute hitzaldia.

Federazioko bi kideek emango dituzte argibideak; Jurgi Olasagasti usurbildarrak eta Amaia Elizondok. Euren esperientzia, Federazioaren ibilbidea eta haur, gazte zein helduekin, Eskola Kiroletik hasi eta goi errendimendu mailara arte egiten duen lanketa bertaratzen direnekin partekatzez gain, euren esanetan gutxi ezagutzen den errealitatea jendarteratu nahi dute.

Hitzaldia hasi aurretik, gaiari loturiko argazki erakusketa bat bisitatzeko aukera izango duzue.

### Maiatzak 27 asteazkena

- Ordua: 18:00.
- Sutegiko erakustaretoan.
- Hizlariak: Jurgi Olasagasti eta Amaia Elizondo.
- 17:00etatik aurrera, kirol egokituari loturiko argazki erakusketa. Antolatzailea: #Kilometroak15 eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa.

## Kirol egokituko erakustaldia

Gurpildun aulkian lehiatzen diren punta-puntako saskibaloi jokalarien entrenamendu saioa, larunbat goiz eta arratsaldez Oiardo Kiroldegian. Eguna hasteko, Espainiako emakumeen selekzioko ordezkari talde baten erakustaldia ikusteko aukera izango duzue. Eta arratsaldean, Salto Bera Bera taldeko kideek prestakuntza saioa egingo dute selekzioko kideekin.

Antolatzaileek eskerrak helarazi nahi dizkiote Udalari, Kiroldegiko pista uzteagatik. Iganderako berriz, "triangularra" antolatu da Donostiako Illunben; selekzioko kideak, Salto Bera Bera eta Angeluko talde baten artean.

**Maiatzak 23 larunbata**
Tokia: Oiardo Kiroldegiko pista.
Ordutegia: 09:30-11:30
eta 17:30-19:30.

## Pilota partidak Usurbilgo frontoian

**Maiatzak 23 larunbata, 10:30 Usurbil**

Nagusiak 2. maila
Setien –Eskudero II (Andoain)
Azpiroz -Flores (Oiartzun)

Nagusiak 1. maila
Larrañaga-Uzkudun (Azpeitia)
Espinal-Mina (Huarte)

Hernandez-Ugalde (Oiartzun)
Goikoetxea-Etxeberria (Beasain)

**Maiatzak 24 igandea, 10:30 Usurbil**

Nagusiak 2. maila
Iraola-Gesalaga (Billabona)(Andoain)
Artetxe-Solano (Lasarte)

Nagusiak 1. maila
Arrieta – Lizeaga (Hernani)
Azpiri – Perez (Gasteiz)

Otxandorena-Landiribar (Baztan)
Labaka-Imaz (Bidegoien)

## Lokitz mendilerrora, Andatzakoekin

- Ekainak 14 igandea.
- Izen-ematea: ekainak 10 arte.
- Abiatzeko hitzordua: goizeko 7:00etan, Oiardo Kiroldegitik.
- Garraioa: autobusez.
- Ibilbidea: 18 km. "Irteera honetan Narkue eta Urbisu herriak lotzen dituen ibilbidean Arnaba mendia igoko dugu".
- Izen ematea: ekainaren 10a baino lehen, 12 euroko ordainketa egin kontu zenbakiotako batean:
Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321.
Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805.
- Oharrak: Plaza mugatuak daude; Otordua, ibilbide amaieran; Edaria antolatzaileek eramango dute; Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua eta aseguru txartela izatea.
- Informazioa: andatza.com

### Emakumeen Pala Txapelketa

Ekainean izango da baina izen-ematea maiatzaren 27an amaituko da. Hona deitu behar da izena emateko: 685712537.

Partidak astelehenetan eta asteazkenetan jokatuko dira, 19.30tik aurrera. Dena den, partiden eguna aldatzeko aukera egongo da, aurkariekin adostu ondoren.

### Kirol munduko arau eta baloreen gaineko hitzaldia, Luis Zulaikaren eskutik

Maiatzaren 28an 19:00etan Potxoenean, Usurbil FT-k antolatuta. Luis Zulaika adituak eta herriko zenbait kirolarik ere parte hartuko dute, Haritz Zubiaurrek bideratuko duen hitzaldian.

### Hastera doa Usurbil Cup txapelketa

Ostiral honetan aurkezpena 19:00etan Askatasuna plazan. Lehen partidak, larunbatetik aurrera.

### Estresa bideratzeko ikastaroa, Kiroldegian

Mendekotasunen bat duten pertsonen zaintzaileei zuzendua egongo da, Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak antolatu duen ikastaroa. Saioak, Oiardo Kiroldegian izango dira. Izen emateko 943 377 110 / Gizarte Zerbitzuak.

### Mailaz igotzeko aukera handiak, 1. Territorial taldeko mutilek

Ligaxkako azken jardunaldia jokatuko du asteburuan Sestaoren aurka. Berdindu edo irabaziz gero, sailkatuta egongo dira matematikoki. Galduta ere aukeraren bat izango lukete, txikia hala ere.

### Alebinak eta infantilak

Udarregi 6B alebin mutilen taldea Gipuzkoako Txapelketarako sailkatu da.

Infantil mutilak berriz, Gipuzkoako Txapelketako finalerdietarako. Finalera iritsi eta irabaziko balu, Euskadiko Txapelketa jokatuko luke.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1.Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

### Alokairuan

Gela bat alokatzen dut Erreka-Txikin. 665319105 / 943367232

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta erroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapax-etik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrenea 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje itxia salgai. 20 m karratukoa. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Lan bila nabil. Interna moduan ere bai. Asteburu eta jai egunetan ere lan egingo nuke. Tel. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak.618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordu-



**Zorionak Oier, Lander eta Amets!** Maiatzaren 20an eta 26an zuen urtebetetzeak izango dira eta bizkotxo goxo goxoa jango dugu ospatzeko. Muxutxuak hirukote.



**Zorionak Peru!** 4 urte! Muxu handi bat etxekoen partez!



**Zorionak Naiara!** 4 urte eh!! Ondo ospatu eta pasa zure eguna. Muxu asko asko, Aizpea, Jon eta familia osoaren partez.



**Zorionak** eta milioika muxu potolo familia osoaren partez, Iker!! Festa handiaren zain gelditzen Gattunk eh!!

## Heriotzak



**Pedro Olaiz San Jose**
78 urterekin hil zen
maiatzaren 12an, Zubietan



**Candido Manterola Begiristain**
87 urterekin hil zen
maiatzaren 17an, Aginagan

tegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prenbentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzear eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonei erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

**BESTELAKOAK**

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 608 566 683.

Duela 8 urtetik etxean genuen berde eta laranja koloreko Agaporni txori bat desagertu zaigu. Inork aurkitu badu, deitu dezala 667 299 223 telefono zenbakira

Bi aulki 0 - 1 urtekoak, "chicco" markakoak saltzen ditut. Nahiko berriak. Tel. 676 39 89 33.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohe bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsu bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Eusko Tren | 943 470 976 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 | LurraldeBus | 943 000 117 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Anbulategia | 943 362 013 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Oa botika | 943 376 076 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Iturralde botika | 943 363 395 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | DYA | 943 464 622 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Emergentziak | 112 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| KZgunea | 943 023 684 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | BBVA | 943 377 155 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 | Telefonica | 1004 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 | Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Maiatzak 21-maiatzak 31

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 21 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Ostirala** | 22 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Larunbata** | 23 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Igandea** | 24 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Astelehena** | 25 | RODRIGUEZ | Kale Nagusia 42. Lasarte |
| **Asteartea** | 26 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Asteazkena** | 27 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Osteguna** | 28 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Ostirala** | 29 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Larunbata** | 30 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Igandea** | 31 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

# Agenda maiatza

## 22 ostirala

- **Ekitaldi politikoa** EHBilduren eskutik. 19:00etan frontoian.

## 23 larunbata

- **III. Sagastiak Loretan: sagastien zaintza ikastaroa. Gaitzen eta izurriteen jarraipena** 9:00etan Potxoenean.
- **Matrakak Talde Feministaren kafe-tertulia.** 11:00etan Potxoenean.

## 24 igandea

- **Udal eta foru hauteskundeak**. 09:00-20:00.
- **Bozka eguna Zubietan:** Herri Batzar berria osatzeko hauteskundeak. 9:00-20:00 Alamandegin.

# Larunbat eguerdian, Matrakak taldeak deituriko kafe-tertulia



Martxoaren 8an bertso-afaria antolatu zuten. Larunbat honetarako kafe-tertulia prestatu dute.

Larunbat goizeko 11:00etatik aurrera, Potxoeneko lehen solairuan. "Konfiantzazko klima intimo bat sortzea da xedea, egunerokotasunean partekatzen ez ditugun gaien inguruan tertulia zabal bat egiteko. Zerbait informala izango da, gure artean hitz egin eta lagunarteko giroan emakumeei eragin eta kezkatzen gaituen gaiei buruz hitz egitera bideratu nahi dugu kafe tertulia hau. Ahalik eta emakume gehienengana iritsi nahi genuke, adinean erreparorik izan gabe, gutako bakoitzak bai baitauka gainontzekoen esperientzietatik zer ikasia. Ziur gaude aberasgarria izanen dela, hortaz, ez pentsatu bi aldiz eta gerturatu lasai, zabalik hartuko baitzaituztegu", luzatu dute gonbita.

### III. Sagastiak Loretan: sagastien zaintza ikastaroa

Larunbat honetan, goizeko 9:00etan Potxoenean. Aitor Etxeandia nekazaritza ingeniariak gidatuko du.

### Usurbilgo dantzariak, igande honetan Urdiñarben

Müsikaren Egüna ospatuko dute bertan. Igandean, 11:00etatik aurrera musika eta dantza emanaldiak izango dira bertan.

## Datozenak

### LH 5 eta 6 mailetako ikasleen bertso jaialdia

Maiatzak 27 asteazkena, arratsaldeko 17:00etan LH 5 eta 6 mailetako ikasleen bertso jaialdia, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. "Ikasturtero, Ahozkotasuna eta Bertsolaritza Programaren barruan Bertso jaialdia eskaintzen dute LHko 5. eta 6. mailako ikasleek. Bikaina izaten da! Zatoz!".

### Muxurbilen ikasturte amaierako ikuskizuna

Ikasturte amaierako emanaldia eskainiko du antzerki taldeak, maiatzaren 29an, 12:00etan Sutegin. Saiorako sarrera doan.

### Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, euskal presoen eta euren senideen eskubideak errespetatzea exijitzeko maiatzeko mobilizazioa, hilaren 29an. Ohi bezala, 20:00etan hasita, Mikel Laboa plazan.

### Datorren astean, kantu-jira

Maiatzaren 30ean larunbata, arratsaldeko 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta. Afal ordura arte luzatuko da, Kantu Taldearen hitzordua.









# OSASUN GIDA 2015

USURBIL OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

2x1
PROGRESIBOETAN

Zubiaurrenea, 10 • 943 370 269 • 675 708 654

---

FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

---

Kima
MASAJE LEKUA

·Kirol masajea
·Masaje terapeutikoa
·Kolonaren hidroterapia (idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

---

Oinutsik
podologia zentroa

ORDUTEGIA BERRIA (EKAINERARTE):

| | |
|---|---|
| asteartea | 9.00 - 15.30 |
| asteazkena | 9.00 - 13.00 / 15.00 - 19.30 |
| osteguna | 9.00 - 13.30 |

ORDUTEGIZ KANPO UTZI MEZUA 943 11 09 54 TELEFONOAN

Oinutsik
943 11 09 54

✓ Azterketa biomekanikoak ✓ Plantilak
✓ Papilomak ✓ Erreflexoterapia
✓ Kolagenozko infiltrazioa ✓ Kiropodiak

Zubiaurrenea 2, Usurbil

---

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
108/12 P.F.Z.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua
Dermofarmazia
Produktu homeopatikoak
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 www.iturraldebotika.com

---

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

*Nagusia 10, 1.C4* 943 37 08 78 USURBIL

# Edertu zaitez!
















